

SHAKHAUR 1976-2021

BIHOTZEKO LAGUNAK – DUCHOWI PRZYJACIELE

'MENDIAK-1976' BBK MENDI FILM BILBAO BIZKAIAN
MENDIKO FILM ONENA ETA IKUSLEEN SARIA

Aitor Elduaen (Mendi Film komunikazioa)



Los 11 miembros de la expedición Shakhaur-Hindu Kush 1976

1976an, 11 gazteren abentura, Iruñetik abiatuta Shakhaur (Afganistan, 7116m) gailurrera bidean: Javier Garreta, Gregorio Ariz, Trini Cornellana, Abel Alvira, Xabier Garaioa, Iñaki Aldaya, Julian Ayucar, Javier Pastor, Julian Lasterra, Gerardo Plaza eta Leandro Arbeloa.

Mendian 17 egunez lan egin eta alturako bost kanpaleku ezarri ondoren, bi taldetan ekin zioten Shakhaurreko gailurrari: 1976ko uztailaren 25ean iritsi zen lau laguneko lehen taldea gora, eta uztailaren 28an bigarrena, bost lagunekoa. Horien artean taldeko emakume bakarra, Trini, mendi hori igo zuen lehen emakumea.

Baina laster goibeldu zen gailurreko poza. Jaitsieran, eskalatazaille bikote bat 300 metro amildu zen: Leandro Arbeloa, hil egin zena, eta Gerardo Plaza, larri zauritu zena. Euren Kanpaleku Nagusitik gertu zegoen espedizio poloniar baten laguntzari esker, Gerardo salbatu ahal izan zuten. "Gure gailurrak itxaron dezake, zuten lagunak ez" izan zen poloniarren erantzuna laguntza eskara duda izpirik gabe onartu zutenean. Erreskate miresgarri bezain

eredugarria burutu zuten haien gidaritzan. Gizatasun lezio handia eman zuten poloniarrek, eta lotura estua sortu zen poloniarren eta nafarren artean.

EUSKALDUNAKO BESARKADAK

Geroztik, 45 urtez elkarren arrastoa galduta egon dira, baina berriro bat egiteko aukera izan zuten iragan abenduan, Bilbon; Poloniako Kultura Institutuko Iwona Zielinskaren esku-hartzeak, pelikulako lantaldearen pasioak, eta Mendi Filmek bideratuta, 'Mendiak-1976' en estreinaldian elkartu ziren berriro, poloniarretako bost, eta nafarretako sei: Garreta, Ariz, Cornellana, Alvira, Garaioa eta Aldaya.

Mendi Filmen 14 edizioetan bizitutako unerik gogoangarrienetakoa izan zen. Euskalduna Jauregiko auditorio nagusiko agertokian, milatik gora ikusleren aurrean, besarkadak, malkoak, irribarreak, oroitzapenak, berotasuna... eta nafarrek poloniarrei opari



Poster 'Mendiak-1976'

egindako txapelak: "Bihotzeko lagunak - Duchowi Przyjaciele, Shakhaur 1976-2021", hitzordu biribila. Publikoa zutik txaloka, emozioak pil-pilean.

Une hori bizitu zuten den-denek goraiatu zuten 'Mendiak-1976' pelikula eta belaunaldi haien ondarea. Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako Saillburua, Lorea Bilbao Bizkaiko foru diputatua, Itsaso Erroteta Bilboko udal zinegotzia, Nora Sarasola BBK Fundazioko Gizartegintza zuzendaria, Angel Tellechea Poloniako ohorezko kontsula, Imanol Muñoz Ternuako ordezkaria... hainbat agintari eta babesle ordezkari bizitu zuten Euskaldunako atmosfera berezi hura. Baita mendizaletasunaren inguruko lagun eza-gun askok ere: EMMOAko Txomin Uriarte; Martin Montañes eta Jose Luis Rubayo, Nafarroako eta Madrilgo federazioetako presi-

Polacos y navarros emocionados en el escenario durante el estreno de 'Mendiak-1976' en BKK Mendi Film Bilbao Bizkaia 2021



Estreno en Cines Golem de Pamplona el 20 de diciembre: equipo realizador de 'Mendiak-1976', directivos de los Golem y Jabier Baraiazarra (Director Mendi Film)

denteak, Sebastian Alvaro (2021eko Mendi Film WOP Saria), Juanjo San Sebastian, Juanito Oiartzabal, Jose Carlos Tamayo, Alberto Iñurrategi edota Juanra Madariaga alpinistak, Silvia Trigueros, Iker Karrera, Jokin Lizeaga eta Oihana Azkorbebeitia mendi lasterkariak, Itziar Zabala, Irantzu Porres edota Ane Hernani eskalatazailleak, Nahia Quincoces mendi eskiatzailea, Mikel Sarasola eta Aitor Goikoetxea ur lasterretako piraguistak... Luzaz gogoratzeko ospakizun eta bilkura ederra.

MENDI TOUR

Harrezkero, segida Iruñean bertan izan zuten Shakhaur'76ko poloniarrek eta nafarrek, non bestela. Mendi Filmen Ikusleen saria eta Mendiko Film Onenaren Saria irabazitako pelikula ari da orain testigantza zabaltzen: Iruñeko Golem zinemetako karteldegian ia bi hilabetez eutsiz markak hautsi ditu, Izabako Ukerdi jaialdian saritua, 2022ko Mendi Tourrarekin Gasteiza eta Donostiara ere iritsi da, eta Tolosara, Leioara, Zangozara, Ataunera, Eskoriatzara, Eibarrera, Zaldibarrera, Valladolidera, Vigora... Udaberrirako hainbat agertokitan iragarri da, Trentoko (Italia) eta Uljuko (Hego-Korea) zinemaldietan esaterako.

Gregorio Arizek gogorarazten duen moduan, "60.000 ikusle biltzera iritsi zen Shakhaur-Hindu Kush espedizioari buruzko emanaldia espedizioaren osteko bizpahiru urtetan, erantzuna itzela izan zen". Espedizioaren pelikula berriarekin gehiago izan daitezela orain, zabal daitezela mendizaletasunaren balioak lau haizeetara!

Jabier Baraiazarra y Gorka Baraiazarra (Director y Subdirector del Mendi Film) flanqueando a los miembros de Ternua Alberto Iñurrategi, Sebastián Alvaro e Imanol Muñoz

